

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Fontes aldizkariak euskal hizkuntzalari buruzko zazpi lan berri argitaratu ditu

*Aipatzekoak dira Erroibarko eta Esteribarko azpieuskalkien aldaerei edo Oiartzungo antzinako azentuazioari (Goizuetako egungoaren antzekoa) buruzko artikulua*

Asteazkena, 2018.eko abuztuak 8

Nafarroako Gobernuak argitaratzen duen [Fontes Linguae Vasconum Studia et Documenta](#) aldizkariaren azken zenbakian, euskal hizkuntzalaritzari buruzko azterketa berriak ezagutzera eman dira. Aldizkaria zazpi artikuluk osatzen dute, eta horien artean nabarmentzekoak dira Erroibarko eta Esteribarko azpieuskalkien aldaerei edo Oiartzungo azentuazio zaharrari (Goizuetako egungoaren antzekoa) buruzko lanak.

Aldizkariko lehen lana Ander Beristainek sinatu du, eta "Azpeitiko euskararen euskalki-hiztegia I" izena du; hain zuzen ere, Gipuzkoako herri horretako azentuazioan eta euskararen fonologian oinarritzen da. Aldaera horretan dauden aldaketa fonologikoak deskribatzen ditu, substantiboak, adjektiboak eta aditzak aztertzearekin batera, dituzten forma eta guzti. Lan hau hiztegi dialektalaren lehen erdia da.

Ondoren, honako lan hau aurkitzen da aldizkarian: "Ezezkoen lehentasuna euskal formatu perifrastikoan: gerturatze diakroniko-tipologikoa". Bertan, Iker Salaberrik euskarazko esaldi negatiboetan aditz nagusiaren eta laguntzailearen ordenaren garapen historikoa ikertzen du. Azterketa testu historikoen analisisian oinarritzen da, eta ezezkoaren ordenari eragiten dioten zenbait faktore kontuan hartzen ditu; hala nola, esaldi-mota edo zein euskalkitan idatzita dauden.

Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle Aitor Ortiz de Pinedorena da



Fontes aldizkariaren azken alearen azala.

“Jon Etxepare eta Pío Baroja” testua. Bi idazleak konparatzen ditu, bateragarritasunak eta aldeak aurkitzeko helburuarekin. Jean Etxeparek euskaraz hitz egiten zutenentzat idatzi zuen batez ere; Pío Barojak, aldiz, gaztelaniadunentzat.

Jarraian, Illinoisko Unibertsitateko José Ignacio Hualdek “Oiartzungo Antzinako Azentuazioa” testua argitaratu du, horretarako, Mitxelenak egindako grabazioa aintzat hartuta. Bertan, azentu-patroiak aztertzen dira, eta egileak ondorioztatu du Oiartzunen garai hartan erabilitako sistemak antza handia duela Nafarroako Goizueta herrian oraindik ere erabiltzen denarekin.

### **Euskal dialektologiari buruzko analisia**

Halaber, Fontes aldizkarian, “Erroibarko aldaeren inguruan ( 6 - Esteribarko erdialdeko azpialdaera. Bigarren erdia)” lana argitaratu da, Koldo Artola etnografoak sinatua. Seigarren lan honekin amaituko da euskal dialektologiari, zehazki, Bonaparte printzeak Erroibar deitutako aldaerari, eskainitako analisia. Erroibarko eta Esteribarko hizkerek osatzen zuten, azken ibar horretako hegoaldeko zenbait herri eta auzo kenduta, Artzibarko aldaerak sartu baitzituen.

“Irudikapen transtestualak eta heterolingueak (oroimenerako) Manu Militari nobelan” testuan, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle Ana Gandarak eta Miren Ibarluzeak kontakizun memoristikoa aztertzen dute Jose Agustin Arrietaren “Manu Militari” nobelan; bertan, euskal generazio batek frankismotik frankismo ondorengo garaira igarotzerakoan izandako bizipenak kontatzen ditu idazleak, eta oroimen-ariketarako erabilitako narrazio-baliabideak aztertzen ditu: transtestualitatea eta heterolingüismoa.

Ana M. Toledok, Deustuko Unibertsitateko irakasleak eta Euskaltzaindiko kideak, “Jean Barbier-en Piarres XX. mendearen lehen erdiko euskal eleberrigintzan” izeneko obra “Piarres I” eta “Piarres II” obretan oinarritzen du; hau da, XX. mendeko lehen erdialdean sortutako euskarazko narratibaren esparruan. Barbier-ek gerra bateko gertakariak edo haien hizkuntza ezagutzen ez zuten agintarien esanetara borrokatzen zuten soldatuenak sartzen ditu, egileak azaldu duenaren arabera.